

AUTORITARISMOA INDARTU EGIN DU KORONABIRUSAK ARABIAK MUNDUAN

joseangel.oria@gaur8.info

Bestela ere askotan bortxatzen diren giza eskubideentzat oso kaltegarria izaten ari da koronabirusa arabiar munduan. Izurriteari aurre egiteko hartu diren neurriek ez diete laguntzen ez askatasunei ez demokraziari. Populazioaren zaintza, hori bai, gero eta zorrotzagoa da.

Gizadiaren erdia konfinamenduan bizitzera behartuta dago koronabirus izurritearen eraginez eta kasu askotan herritarrak oso zorrotz zaintzen dituzte segurtasun indarrek, gaixotasunaren aitzakiapean. Baita gainerako herritarrek ere, egunotan urrutira joan gabe ikusi ahal izan dugunez. Populazioaren gehiengoak bat egiten du hartu diren neurri horiekin, baina begirale batek baino gehiagok gogorazten du izurritea geldiarazteko abian jarritako ekimen batzuek oso ondorio kaltegarriak izango dituztela giza eskubideentzat.

Kezka hori oso nabarmena da Ekialde Hurbilean zein Afrikako iparraldean, herrialde horietan herritarren eskubideak betidanik oso ahul egon baitira. Gainera, leku horietako erregimenak oso autoritarioak izaten dira eta aginteari aurre egin ahal izateko herritarrek beren eskuetan dituzten baliabideak oso eskasak dira.

AZKEN HILABETEOTAKO IRAULTZAK

Koronabirusak aginduta, askatasun pertsonal batzuk mugatuta daude herrialde askotan, herritarrak puntu batetik bestera mugitzea batez ere. Eraginez, gaur egun ia erabat hutsik ikusten ditugu makina bat hiritako etorbideak.

Ia erabat idatzi behar, tarteka ibilgailu militarren bat ikusten baita, konfinamendua betearazi nahian. Kale nagusi, plaza eta etorbide horiek oso ezberdin ikusi genituen orain hilabete batzuk: manifestariz gainezka, benetako aldatetako exijitzen. 2019an Aljeria, Irak, Libano eta Sudango gobernuak erori egin ziren herri mobilizazioen eraginez, eta herritarren haserrearen begi bistakoa da oraindik ere, herrialde horietan zein beste batzuetan ere.

Koronabirusa herrialde arabiarretan ere zabalduta da. OME Osasunaren Mundu Erakundeak emandako datuen arabera, eremu horretan 42.000 pertsona zeuden kutsatuta joan zen asteburuan eta horietako

2.600 eraman zituen Covid-19ak. Datu horiek ikusita, nazioarteko erakundeak izurritearen aurkako neurri gogorragoak eta kudeaketa gardenak eskatu zien agintariei. Mezuaren lehen zatia oso ondo ulertu dute gobernuak, baina bigarrenak ulertzea gehiegi kostatzen ari zaie.

Denbora gehiegi egin al dute gauza guztiak ezkutuan kudeatzen? Agian horregatik politikari horiei garden jokatze eskatzea gehiegi izan daiteke. Baita jokoan dagoena herritarren osasuna izanda ere.

Jordania monarkia bat denez, bertan Abdullah erregeari tokatu zaio Gobernuari ahalmen bereziak ematen dizkion dekretua sinatzea. Militarrek beren ibilgailu blindatuak atera zituzten kalera eta ehunka lagun atxilotu dituzte dagoeneko etxeratzeko agindua be-

har bezala ez betetzeagatik (espetxe zigorgogorrak iragarri dituzte agintariek).

AUTOAK KONFISKATU JORDANIA

Jordania da neurri zorrotzenak hartu dituen arabiar herrialdea. Gobernuak joan den igandean jakinarazi zuen instituzio guztiak itxita edukiko dituztela beste hiru aste. Etxeratzeko agindua bortxatzen duenari ibilgailua konfiskatzen diote. Hamar milioi biztanle dituen herrialdean 259 lagun daude kutsatuta eta oraindik hiru hildako baino ez dituzte zenbatu.

Arabiar munduko mendebaldean ere monarkia bat daukate. Marokon Armada hedatu dute Rabat hiriburuan, «larrialdi sanitario egoera» bete dadin bermatzeko. Berriketa gutxi horiekin. «Jendeak ordena eskatzen du. Aitzakia

Egiptoko Giza hiriko udal langileak, aurpegia maskarekin estalita, piramideen inguruak desinfektatzen saiatzen. Argazkia martxoaren 25ekoa da.

Khaled DESOUKI | AFP



horrekin, koronabirusa dela-eta, Estatuaren zereginari politikoki zilegitasuna emateko operazio erraldoi bat ikusten ari gara», esan dio France-Presse agentziari bere izena eman nahi ez duen kazetari marokoar batek.

Marokoko erregimenak agindu duenez, izurritearen eraginez lanik gabe, diru sarrerarik gabe alegia, geratu diren familia pobreei laguntza emango zaie datozen hiru hilabeteetan. Mohamed Benchaaboun ministroak emandako datuen arabera, lau milioi lagunek jasoko dute laguntza hori apirilaren 6tik aurrera.

Palestinarrei israeldar agintariak esandakoa betetzea beste erremediorik ez zaie geratzen. Israel potentzia kolonizatzaileak Shin Beth barne segurtasun zerbitzuaren izaera aldatu eta «terrorismoaren aurkako borrokan» egotetik, koronabirusari aurre egiteko herritarren datuak biltzera pasa da.

KONTROL NEURRI INTRUSIBOAK

Horretarako Shin Bethen Gobernuaren baimena jaso du. Benjamin Netanyahu lehen ministroaren erabakiak eztabaida eragin du, sekulako krisi politikoa bizitzen ari den Israelgo gizartean. “Financial Times” egunkarian Yuval Noah Harari antropologo israeldarrak idatzi duenez, «izurritea gertaera gogoangarri eta erabakigarria izan daiteke, zaintza masiborako tresneria erabiltzeak herritarrak gero eta kontrol neurri intrusiboagoetara eramango dituelako».

Aljeriako protestaldiak izurritearen eraginez amaitu egin dira, oraingoz. Orain urtebete abian jarri zen giza mugimenduak gauza aipagarriak ere lortu ditu, baina oraingoz manifestariak etxean geratu beharra dute. Gobernuak kanpoko erakundeak jakinarazi duenez, protestaldiak amaitu dira, baina Justizia Administrazioak martxan ipinitako zigor makineria ez da gelditu. «Hirak protesta mugimenduak mobilizazio guztiak bertan behera utzi ditu koronabirusaren eraginez, baina Gobernuak ez du eten errepresioa», adierazi du Twitter sare sozialean Eric Goldstein Human Rights Watch gobernu kanpoko erakundeko eledunak.



Gazako palestinarrak Israelgo Armadak bidalitako misilen erasoak jasan behar izan dute egunotan. Irudian, Jihad Islamikoko ekintzaileak Rafah hiriko kaleetatik koronabirusa ezabatu nahian.

Said KHATIB | AFP

Beheko irudia Rabat Marokoko hiriburuan hartutakoa da. Polizia batek ogia kalean saltzen duen herritar bati bere gauza guztiak jaso eta etxera joateko agintzen dio.

Fadel SENNA | AFP

Jordania da neurri zorrotzenak hartu dituen herrialdea. Gobernuak joan den igandean jakinarazi zuen instituzio guztiak itxita edukiko dituztela beste hiru aste. Etxeratzeko agindua bortxatzen duenari ibilgailua konfiskatzen diote

Yuval Noah Harari israeldarrak idatzi duenez, «izurritea gertaera gogoangarri eta erabakigarria izan daiteke, zaintza masiborako tresneria erabiltzeak herritarrak gero eta kontrol neurri intrusiboagoetara eramango dituelako»



Demokraziaren aldeko ekintzaileak larri eta Abdelaziz Bouteflika iaz erorita-
tako agintaria, berriz, Aljer hiriburutik
gertu bizi da, Zeraldan, arreba eta me-
dikuak ondoan dituela. Berak agintean
egin zituen hogei urteetan izandako
ustelkeriaren arduradun nagusitzat
dute Hirak mugimendukoek. «Aljeria-
rrok ezin izango dugu orrialdea pasa
Bouteflika epaitu arte», esan du Moha-
med Hennad ekintzaileak.

SEKTARISMOAREN AURKAKOAK

Libanon ere herri mugimendua birusa-
ren biktima izan da. Hilabete luzez Bei-
rut hiriburuko erdigunean antolatuta-
ko kanpaldian egin eta gero, Polizia
joan zen astean joan zitzairen manifes-
tariei, gauez jakina, eta karpa eta kan-
pin denda guztiak kendu zituen. Malek
Kabrit Sabaa alderdiko eledunak Efe
berri agentziari kontatu dio beraiek
karpa bat zutela protestaldian, izurri-
tearen aurkako neurriak hartu ziren ar-
te, eta orduan utzi egin zutela mobili-
zazioa. Karpa plazan utzi zuten, etxerik
gabeko herritarrek erabil zezaten.

Tunisiako egoeraren azterketak gal-
dera asko uzten ditu. Bertako sistema
demokratikoa oso berria da eta, horre-
xegatik, hauskorra. Ben Ali diktadore-
aren erregimenaren indarririk garrantzi-
tsuena Polizia zen, begirale guztiek
onartzen dutenez, baina, diktadoreak
ihes egin ondoren ia ez ziren aldatu
segurtasun indarrak, hurbilago dauz-
kagun beste “trantsizio” prozesu ba-
tzuetan gertatu moduan. Lehen polizia
ziren asko orain ere halaxe dira.

Tunisiako Giza Eskubideen Ligak
konfinamenduaren inguruko xeheta-
sunak argitzeko eskatu du, jarduera ar-
bitrarioak saihestu nahian. Izan ere,
egunotan sarean zabaldu denez, Poli-
ziak gogor jipoitu ditu kalera ondo jus-
tifikatuta ateratako herritarrek ere. As-
teartean presidenteak jakitera eman
zuenez, pandemia garaian kartzelak
beteegiak daudela-eta, 1.400 preso as-
katuko dituzte. Aldi berean, izurritea-
ren aurkako neurriak ez betetzeagatik
mila lagunetik gora atxilotu dituzte.

Egipton ere egin zituzten 2011n dik-
tadorearen aurkako mobilizazio ikara-



Hizbula mugimenduko kideak laguntza antolatzen Libanoko hiriburuan. AFP

garriak, baina orduan irabazitakoa eta
gehiago, galdu egin zen hurrengo urte-
etan eta gaur egun zalantza izpirik ga-
be esan daiteke ez prentsa ez justizia
independenten ez dutela. Preso poli-
tikoen senideak oso kezkatuta daude,
bete-bete eginda dauden kartzela ziki-
netan koronabirusak sekulako txiki-
zioa eragin dezakeelako. Giza eskubide-
en aldekoek emandako datuen arabera,
Egipton 60.000 preso politiko dituzte.
Amnesty International gobernuz kan-
poko erakundeak iritzi delituengatik
preso dauzkaten guztiak aske uzteko
eskatu du, baina Kairok horietako ha-
mabost besterik ez ditu utzi kalean.

Persiar golkoan ere giza eskubideen
defenditzaile asko espetxean dituzte.
Arabiar Emirerri Batuetako Ahmed
Mansour eta Bahraingo Nabil Rajab
ekintzaileak askatzeko eskatu dute.
HRWk gogorarazi du kartzelak lepo
daudela eta inolako higienerik ez dute-
la. Zerbitzu medikoak luxuzko produk-
tu bilakatu dira. «Pandemia dela-eta,
ez al da garaia kontzientzia presoak as-
katzeko?», galdetu du sarean Anwar al-
Rashid Kuwaiteko ekintzaileak.



Normalean ibilgailuz beteta egoten diren Dubai hiriko errepideak hutsik zeuden martxoaren 28an, pandemiaren eraginez. Karim SAHIB | AFP